



## Behin betiko irtenbidea iragarri dute

Bazkardo aldeko ur-zikinak Adunako araztegi bideratzeko eta Ziako erreka berbideratzeko egitasmoa aurkeztu du URA Agentziak / 4-5

### Nesken erakustaldia

Atarrabian bikain aritu ziren Andoaingo Txirrindulari Eskolako kadeteak eta juniorrak / 3

Sahararen aldeko bertso-saioa  
Andoaingo Basteron, igande honetan / 8

Errigora, Nafarroako uzta eta euskararen sustapena uztartzen dituen ekimena / 3

Kontrakorik esan ezean,  
Udalak euskaraz bidaliko dizu informazioa

2001etik 2004ra 18 urte bete dituztenek Udalarekin dituzten harremanak zein hizkuntzatan nahi dituzten izan adieraz dezakete. Horretarako, martxoaren 31 bitarteko epea izango dute.

<https://labur.eus/andoaingoudalarekineuskaraz>



martxoak 9 - 29

Nafar hegoaldeko uzta  
eskutik eskura

# Bat egin Errigora Balioekin

Eskatu Nafarroa hegoaldeko oliba-olio  
birjina estra, kontserbak, arroza, pasta  
eta lekaleak euskaraz etiketatuta eta  
ekoizlearen jatorrizko prezioan.

[errigora.eus](http://errigora.eus)



Bete ezazu  
despentsa  
*urte guztirako*



**Alba Cabrera Jauregi** URNIETA

Udaberrian, Euskal Herri osoan barrena, Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura ibiliko da, Errigora ekimenaren eskutik: martxoaren 29ra bitarte izango dute herritarrek produktuen gaineko eskaera egiteko aukera. Euskara, elikadura burujabetza eta auzolana sustatzeko helburuz sortu zen orain hamar urte proiektua, eta, gaur egun, lanean dihardu buru-belarri, komunitatean. Bada, egitasmoak bere hastapenetik izan du lotura estua AEKekin. Hori horrela, gertutik ezagutzen du Errigora Aloña Braceras Izaguirre Urnietako AEK-ko arduradunak. **Martxoaren 9an hasi zen Errigora-kanpaina, eta hilaren 29ra bitarte egongo da aukera eskaera egiteko. Zer eskaintzen da?**

Erriberan ekoizten diren produktuak. Hamabi unitateko multzotan saltzen dira. Urteko produktuen bilketa egitea da asmoa, eta, nire ustez, olioaren salmentak du indar gehien. Aukera pila ematen dituzte askotariko tamainatan, bost litro, bi litro...

**Ondo esan duzun bezala, hamabi unitateko kutxatan saltzen dituzte produktuak. Epe luzera begirako kontsumoari erreparatzen al diote, udaberriko kanpainan?**

Urteko biltegitratzea egitea da beren asmoa. Produktu batzuk urte osokoak dira, eta beste asko sasoiari sasoikoak, baina iraupen ona daukate guztiek.

**Interesa duenak, nola egin behar du Errigorako produktuak erosteko?**

Online erosketa bidez egiten da, eta erabiltzailea sortu behar da lehenik. Hiru modu daude ordainketa egiteko: produktua jasotzen den egunean eskudirutan, erreserba egitean, txartelarekin, edo Bizum erabilita. Urnietako AEKren kasuan, Hernanin egiten da banaketa; maiztze ostiral batez, Gudari plazan, udaletxeko arkupeetan egoten gara egun osoan, eskariak banatzeko.

**Zer dute berezitik Errigorako produktuek? Zergatik erosi egitasmoaren eskaintza?**

Tokiko ekoizpena babesten du Errigorak, baita euskara ere. Bidezko merkataritza du oinarri proiektuak eta Erriberako euskarari bultzada ematen dio. Horrez gain, komunitateari eta auzolanari garrantzia ematen zaio. Balio erantsia dute produktuek.

# “Tokiko ekoizpena babesten du Errigorak, baita euskara ere”

**ALOÑA BRACERAS IZAGIRRE** URNIETAKO AEK-KO ARDURADUNA

Martxoaren 29ra bitarte, udaberriko kanpainako produktuak eskatzeko aukera izango dute herritarrek. Auzolana, euskara eta tokikotasuna ditu oinarri Errigorak



Aloña Braceras. AIURRI

**Martxoaren lehenean, Errigora Balioak identifikatzailearen aurkezpena egin zen. Zer behar du produktu batek zigilu hori eskuratze-ko?**

Produktua egitasmoak babesten dituen balioekin bat datorrela ziurtatzen duen zigilua da: tokikotasuna, euskara, auzolana... **Errigorak ez du, ordea, bere eskaintza udaberrian, soilik, luzatzen, udazkenean ere aritzen baita Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka egiten.**

Udazkenean saskiak saltzen dira, eta, horietan, konbinazioak egiten dituzte. Hiru mota daude eta bakoitzak produktu jakin batzuk ditu. Kutxa bakoitzarekin lortzen den etekinaren % 25 euskarari bultzada emateko bideratzen da.

**Hamar urte bete ditu Errigora egitasmoak. Lehen kanpaina 2013an egin baitzuen egitasmoak, udazkenean,**

## Udaberriko produktuak

Nafarroa hegoalde eta erdialdeko oliba-olio birjina estra, kontserbak, arroza, pasta, lekaleak eta fruitu lehorrak, Errigora Balioak zigiluarekin.

### Errigoraen banaketa-guneak

200 bat herritan daude banaketa-guneak. Honatx, irakurle, etxetik gertuen dituzunak:

#### Andoain

- Andoingo AEK.
- Aita Larramendi Ikastola.

#### Hernani

- Hernanialdeko AEK.
- Aratz ikastola.

#### Lasarte-Oria

- Ttakunenea.

#### Usurbil

- Noaua Kultur Elkartea.

**hain zuzen ere. Hastapenean bezain arrakastatsua al da gaur egun ere?**

Guk ikusten dugun mugimenduan, gorakada egon dela esango nuke. Erantzun ona dauka, eta, pixkanaka-pixkanaka, errotzen ari da egitasmoa. Hala, horren harira, proposamen berriak sortu dira, zigilua, esate baterako.

**AEK beti egon da Errigoratik gertu, elkarlanean. Zergatik da garrantzitsua?**

Erriberan euskarak duen presentzia ikusita, nire ustez, gure printzipioekin bat datorren ekimena da Errigora. Horrez gain, oinarri dituen gainerako balioak lotuta daude AEKren izpiritua-ekin.





Ama Kandida etorbidean lurrazpian sartu zuten Ziako erreka. AIURRI

# Behin betiko irtenbidea

Ziako erreka saneamendu eta bideratze lanetarako behin betiko proiektua onartu dute. Ur zikinak Adunako araztegiarekin lotuko dituzte, eta Ziako erreka berbideratuko dute. Bi egitasmoak bideratuta, Ama Kandidako etxebizitzaren eraikuntza abiatuko da

## Xabier Lasa ANDOAIN

Ziako erreka saneatzea eta berbideratzea Andoaingo herriak aspalditik egiteke daukan egitasmo garrantzitsu horietako bat da. Sekula gauzatuko ez den herritarren eskakizuna zirudien, baina, azkenean, gauzatuko dela agindu zuten Jaurlaritzako, URA Agentziako eta Andoaingo Udaleko ordezkariak, Ama Kandida etorbidean joan den martxoaren 11n egin zuten agerraldian.

Oria ibaira egiten den zuzeneko isurketa handiena Adunako saneamendu-sarera bideratu, eta, erreka uholde-arriskuen aurrean babestea lortuko da egitasmoaren eskutik, iragarri dutenez.

Agerraldian, Arantza Tapia Sailburuak adierazi zuenez, “arazo hidraulikoak eta isurketenak konpontzea ahalbidetuko du, baita Ama Kandida

inguruko hirigintza-erlaldaketa desblokeatzea eta erraztea ere. Izan ere, badakigu Andoaingo herriak premia handia duela Ama Kandidaren eremua eraberritzeko, segurtasuna hobetzeko eta etxebizitzak berriak sustatzeko”. Gaineratu zuenez, “espero dugu Ziako erreka arazo izatetik Andoainerako auzo berri bat eraikitzeak aukera izatera pasatzea”.

Ildo beretik joan ziren Mainer Lainez alkatearen adierazpenak, “Andoainek urteak daramatza egitasmo hori eskatzen, eta proiektu hau behin betiko onartzeak auzo berri bat garatzeko aukera emango digu”.

Antonio Aiz zuzendariak eta Imanol Goenaga teknikariak ordezkatu zuten URA Agentzia agerraldian. Aizen hitzetan, “funtsezkoa da hirigintza eta ingurune hidraulikoa elkarrekin

harmonian bizitzea; aire zabaleko erreka edukitzeak ingurune bizigarria eta atsegina sortzea ahalbidetuko du”.

## Hiru fasetan gauzatzeko

Hiru fasetan eta, aldi berean, burutuko dira saneamendu-lanak eta erreka berbideratze lanak; 46,9 milioi euroko inbertsioa aurrakusi dute horretarako. URAREN kompetentzia da egitasmoa, eta berak ekin dio obren lehen fasearen (saneamendu osoa eta ubideratzearen lehen zatia) lizitazioa prestatzeari, 22,1 milioi eurotan. Udaberri honetan, eta 32 hilabetetan gauzatu behar da, eta horretarako, URA berak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Andoaingo Udalak obrak finantzatzeko hitzarmena sinatu beharko dute; eta, beraz, erakunde bakoitzeko gobernu-organoei egitasmoari argi berdea

eman beharko dute datozen egunetan.

Hiru erakundeek nor bere ekarpena egin beharko du: Aldundiak saneamendu-jarduketaren % 40 finantzatu beharko luke 4.289.317 eurorekin. Udalak, 390.567 euro finantzatu lituzke hornidura-sare berriari dagokionez (1,3 kilometroko eroanbide berria Super Amara eta Martin Ugalde Kultur Parkearen artean) edo lurzoruak jarrita. URARI egokituko zaio gainerako jarduketa: 17.425.291 euro (saneamenduaren finantzaketaren % 60a eta bideratzearen % 100a) jarri beharko ditu, eta horrez gain, proiektuaren idazketa, kontratazioa eta obraren zuzendaritza.

## Errekaren saneamendu lanak

Saneamenduko Kolektore nagusia eraikiko da, eta gaur egun Ziako erreka isurtzen dituzten hiri- eta industria-isurketa guztiak bildu, eta Adunako araztegiara bideratuko da. Horrela, kolektore nagusi horrek Gudariaren etorbideetik (Super Amara supermerkatuko ingurunea) Ama Kandida etorbidearen erdiraino (Orbelan enpresaren parean) joango da, bertan dagoen sarearekiko konexioraino; bidean, hainbat kolektore txikiren isurketak jasoko ditu.

Zenbakietan adierazita, 1.600 metro izango ditu kolektore nagusiak eta 2.890 metro bigarren mailako kolektoreek (ur beltzak eta euri-urak jasoko dituztenak). Sare horrek industria-isurketak ez ezik, hirikoak ere jasoko ditu, Erroitz, Plazaola, Arantzibia eta goialdeko beste zenbait auzotatik.

Iazko abenduaren 19an, URA Euskal Agentziako Antonio Aiz, Imanol Goenaga, Aitziber Urkijo eta Jonathan Uson ordezkari eta teknikariek egitasmoari lotutako hainbat alderdi tekniko azaldu zituzten udaletxeako pleno aretoan, jendaurrean egin zuten agerraldian. Ekitaldi hartan, ziurtatu zuten, gaur egun, Ziako erreka 7.500 biztanleen eta 400.000 metro koadroko azalera hartzen duen industriaren

## HIRIGINTZA EGITASMOA BIDERATZEKO BALIAGARRIA DA HITZARMENA

ur-zikinak jaso eta Oria ibaian isurtzen dituela.

Bestalde, ohartarazi zuten klima aldaketaren eraginez batik bat, gero eta ugariagoak izango direla muturreko fenomeno klimatologikoak (euri-jasak eta abarrak). Horrexegatik, eta beren estimazioen arabera, Ziako errekan proiektua gauzatzeak ahalbidetu dezake uholdeetatik libratzea hurrengo ehun urtetan behintzat.

Proiektuak gainera, uholde-arriskuak ekiditeaz gain eta erreka beraren balio ekologikoa babestez gain, beste zenbait onura ere ekarriko dituela gogorarazi zuten: hala nola, erreka herrigunean integratzea eta herri bizigarriagoa egitea, eta, herritarrek merezi duen balioa ematea.

## Errekaren bideratze-lanak

Ziako erreka saneatzeaz gain, bideratu ere egingo da. Batik bat, uholde arriskua murriztuko da, eta, era horretan, bere inguruan bizi diren bizilagunen eta jarduera ekonomikoaren segurtasuna ziurtatzea ahalbideratuko da.

Zehazki, Martin Ugalde Kultur Parke ingurutik aurrera, ubidearen ibilbide berri bat sortzea aurreikuspen da. Gainera, erreka zabaldu egingo dute (bost bat metroan), eta Berrozpe eta Ama Kandida etorbidean eta Calonge auzoan bistan utziko dute zenbait zatitan; 325 metro inguruko tartean, 164 metro aire zabalean egongo dira.

Dimentsio handiko proiektua da, eta hiru fasetan banatu da. URAREN aurreikuspenen arabera, 2023an lizitatuko da saneamendu-proiektu osoa ez ezik baita ere uholdeen aurkako defentsa-proiektuaren lehenbiziko fasea.

Lehen fase hori Martin Ugalde Kultur Parkearen parean hasi eta Denak poligonoaren hasieraraino luzatzen da. Eskualde Garapeneko Europako Funtsak finantzatu du obraren zati hori.

Bigarren fasean, Ama Kandida etorbidea-Bazkardoren amaieratik hasita, N1a lurpean gurutzatzen duen, Calonge inguruan iritelen den eta erdikoa-aren parean Oriarekin bat egiten duen tarteko ubide zatiari ekingo zaio; 15.165.146 euroko aurrekontua izango du, eta 14 hilabetezko exekuzio-epea izango du obra esleitzen denetik.



Urako Aiz, Eusko Jaurlaritzako Tapia eta Andoaingo Udaleko Lainez eta Goenaga.

Azkenik, hirugarren faseak lehen eta bigarren faseen arteko tarte lotuko du, eta Ama Kandida etorbideetik igaroko da. 10.017.386 euroko aurrekontua izango du, eta 13 hilabete igaroko dira obra esleitu eta obrak hasten direnetik.

#### Koordinazioa, funtsezkoa

Ziakori lotutako proiektuan inplikaturako erakundeek azpimarratu dute lan-koordinazioa ezinbestekoa dela Ama Kandida etorbidearen urbanizazio plangintza eta aipatu errekaen saneatze eta bideratze lanak gauzatzeko orduan.

Burubide hori aintzat izanik, URAk, Andoaingo Udalak eta AIU5eko kontzertazio-batzordeak (Ama Kandida etorbideko hirigintza plangintzan lur eremuen jabe direnen elkargoa) lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, otsailaren 23an.

Zehazki, hitzarmenean inplikaturako aldeek honako konpromisuak hartu zituzten: URAk, Ziako errekaen saneamendu-eta ubideratze-lanen proiektuak egin eta finantzatzea, AIU5eko lurren urbanizazio-karga gisa jaso direnak izan ezik; Udalak, besteak beste, urbanizatuko den eremuan, URAk egin behar dituen proiektuen aurreikuspenak aintzat hartzea, eta saneamendu eta uholdeei aurre egiteko lanen trazadura doan lursailak aske uztera, URA lanean hasi dadin. Azkenik, AIU5 Hitzarmen-batzarrak konpromisoa hartzen

du AIU5 eremuko urbanizazio-kargak gauzatzeko, bere eremuari eragiten dion erreka-stoaren ubideratzeari dagozkionak barne, besteak beste. Proiektuari buruzko informazioa:

Hiru aldeek otsailaren 23an egindako agerraldian, bat egin zuten hitzarmenak arazo hidraulikoak eta ondo tratatu gabeko isurketen arazoa konpontzea ahalbidetuko duela, eta aldi berean, Ama Kandida etorbidearen eremuan hirigintza-eraldaketa desblokeatzea eta erraztea eragingo duela.

#### Atzeratzen joan den egitasmoa

Aspaldikoak dira egunotan iragarri den proiektua bideratzeko iragarpena. Bilera ugari egin izan dituzte aurreko legegaldietan ere Udal ordezkariak konponbidearen giltzarria daukan URA Euskal Agentziarekin. Nolanahi ere, ez atzera ez aurrera egon da irtenbidea, hamarkadetan.

Eguzki talde ekologistak lanen atzerapena salatu zuen 2019ko apirilean, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen sailburu Iñaki Arriolak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok hainbat lan hidrauliko egiteko instituzioen arteko akordio berriaren zirriborroa aurkeztu zutenean. Talde ekologistak gogoratu zuenez, Andoaingo Ziako errekaen saneamendua berriro atzeratzen zuten, zirriborroaren arabera. "Kontuan izan, 2007an, Jaurlaritzak eta Aldundiak horrelako



Ama Kandida etorbidea. 1997ko uholdeek eragin zuten irudia. AIURRI

## Ziako: erreka ezezaguna askorentzat

Leizotz baserri-auzoan, Errekabeltz, Lekunategi eta Penadiko erreka-stoaren elkarketaz sortzen da Ziako erreka Krafft lantegitik gertu, eta bere emaria Gudarien etorbidean dauden lantegi eta etxeen artean doa behin Andoaingo norabidea hartuta. Lur azalez doa hasieran, eta Martin Ugalde Kultur Parkeko parera iritsiz geroztik, lur azpian sartu eta Txixarrain baserri aldera jotzen du. Berrozperaino helduta, segidan, Ama Kandida etorbiderako norabidea hartzen du, eta N1 azpitik igaro eta gero, Oria ibaian isurtzen da. Bidean, batik bat Aitza, Erroitza eta Idiazabal erreka-stoetako urak biltzen ditu.

Egia esatera, bere ibilbide osoan menditik jaisten diren erreka-ugariren ur garbier hornitzen da, baina, aldi berean, bere bazterrean dauden industria-gunetatik kutsadura ere jasotzen du. Horrela, bere lehenbiziko zatian aire zabalean doanean, tarteka, ikusgarri egiten da zein zikin doan isurketa kimikoren baten eraginez. Horregatik, ez dira gutxitan keixatu bertan bizi diren Buruntza auzoko zenbait



Ziako erreka isurketa ugari egin izan dira. AIURRI

bizilagun. Andoaingo Udaleko ingurugiro saila zein Ura Agentzia jakinean gainean daude aldian behineko isurketekin, eta ikerketak zabalik daukate lehenik ere.

Bestalde ere ez da ahaztu behar euri-jasak izan direnetan Ziako erreka nola egin izan duen gainezka. N1 errepeideak

eragiten duen "hesi-efektuak" eta biek bat eginda, txikizio galantak sortu zituzten Kaletxikin, Ama Kandida etorbidean eta Bazkardon, 1997ko ekainean, esate batera. Andoaindarrek memorian gordeta daukate oraindik, egun haietako irudi ikaragarri haiek.

akordio bat sinatu zutela 2011. urte bitartean hainbat saneamendu-proiektu aurrera eramateko. Proiektu haietako bat Andoaingo Ziako erreka da.

Garai hartan, aurrekontua 3,8 milioi eurokoa zen eta Jaurlaritzak osorik finantzatzeko konpromisoa hartu zuen. Ez zuen agindutakoa bete, ordea, eta,

gauzak horrela, 2016an, Plan Hidrologiko berriak Ziako erreka saneamendua egin gabe jarraitzen zuela gogoratu eta aurrekontua eguneratu zuen.



Eskaintza bereziaz gozatzeko aukera izan zen aurreko ostiralean eta larunbatean. Argazkian, Gamer. AIURRI

## "Outlet kalean" edizio berria igaro da

Salkin elkarteak edizio berria antolatu zuen, aurreko asteburuan. Pottoko, Durazno, Ormendi, Amabi... produktu ugari eskaini zen baldintza berezietan. Tokiko merkataritza sustatzeko ekimenak harrera ona izaten jarraitzen du

### Erredakzioa ANDOAIN

Jantziak, bitxiak, oinetakoak... ohi baino merkeago erosteko aukera zabala izan zen aurreko asteburuan. Badira "Outlet kalean" ekimena baliatzen saiatzen diren dendariak, produktuak erakuslehoaren kanpoaldera ateraz. Pottoko, Ormendi edo Durazno aipa daitezke, beste askoren artean. Udalerrri osora zabaltzen da Salkinen ekimena. Urtarrileko beherapenen ostean merkataritza biziberritzeko ekimena baliagarria da.



Aukera zabala izan da egun hauetan. AIURRI

## Ostadarra, ikusgarria

Hotz-bero aldaketa handia eman zen Andoainean, denbora tarte laburrean. Zerura begira jarrita, tarte argiak eta ilunak antzematen ziren. Tenperatura ezbedineko hodeien talka horretan ekaitza piztu zen. Eta ostadarra orduantxe agertu zen, paisaia ikusgarriak sortuz. Une hori argazki bidez jasotzeko joera instantekoa da, jendarteak bizi duen aro digitalean.



URANGA

## POSTONTZIA

### CII PROIEKTUAK KALETUTAKOEN PLATAFORMA ANDOAIN

## Jendaurreko aurkezpena

Plataformak martxoaren 26an jakinaraziko du zenbat atxikimendu jaso dituen helburu betegarrien dekalogoaren proposamenak. Atxikipenak arazteko fasea amaituta, herriko notario-tzak jasotako atxikipenak egiaztatuko ditu notario-agiri baten bidez.

Plataformako kideok oso pozik gaude jasotako babes apartagatik eta, aldi berean, sentsibilitate guztietako ehunka andoaindarrengandik jasotako maitasun-adierazpenengatik. Horrek segurtasuna ematen digu hasitako bideari buruz. Plataformaren ustez, fase bat amaitu da Udalaren aldetik jasotako babesarekin, bai 2022ko irailaren 12koa, bai joan den otsailaren 20koa. Argi geratu da aukera berri bat behar dela proiektu berri bat birpentsatzeko, non andoaindar guztiok parte hartu ahal izango dugun.

Proiektu berria gauzatzeko, baliabide ekonomikoak jarri dira, eta lortu beharreko helburuak ezarri. Hemendik aurrera, parte-hartze aktibo eta demokratikoaren fase komunitarioan sartuko gara, Andoainek eta andoaindarrek hainbat hamarkada daramaten proiektu bat gauzatzeko beharrezkoak diren adostasunak lortzeko. Martxoaren 26an, Plataformak publiko egingo du jasotako babes handia. Andoaindarren aldetik jasotako babes eta maitasun adierazpenak eskertzeko unea izango da. Begirada altxatzeko eta helburua horizontze berrietan jartzeko unea izango da, guztiok pozik senti gaitezen egindako ahaleginagatik eta lanagatik. Martxoaren 26a egun handia da. 12:00tan itzarongo zaitugu Goikoplazan, eta euriarekin, Ikastolako frontoian.

## Gida-baimena, euskaraz

Buruntzaldeako herritarren artean aspaldikoa da ekimena. Aurtengoan, Andoainean euskaraz ikasi dutenen artean, sari bana jaso dute Mirene Iraola eta Jon Mugica gazteek. Sarituak zozketa bidez erabakitzen dira. Ruiz zinegotziak gazte andoaindarrek euskaraz trebatzeko egindako apustua eta ahalegina azpimarratu zuen.



UDALA

## Abiadura, 60tik 70era

Bazkardo aldean kokatutako radarrean gehieneko abiaduran aldaketa izan da, berriki. Orain bi urte ipini zen lehenengoz, 60 kilometro orduko abiaduraren mugan. Bada orain, langa estu hori igo dute. Donostiako norabidean, A-1 errepidea utzi eta A-15 autobidea hartzen den bihurgunean kokatuta dago aipatu radarra.



AIURRI

## IRITZIA

JON ANDER UBEDA ANDOAIN

# Andoaingo ekonomia zirkularrak pauso bat emango du atzera, Kynai dendaren itxiera gauzatzen denean

Erosi, erabili, bota. Erosi, erabili, bota. Eta berriro erosi. Eta berriro bota. Inditexek kontsumo lineal horren gainean altxa du bere inperioa. Arrakasta, irabaziei erreparatuta. Jasangarritasunari begira, ordea, mundu mailan antolatuta duten industria lineal hori desastre hutsa da.

Gurera, oso gurera etorrita, zirkuluaren bila goaz arropa erosi, erabili eta bota beharrean, konpontzeko erabakia hartzen dugun une berean. Arropa-dendan erosi nuena, denbora batez erabili eta urratu dudana, jostunak konpondu dit, eta neronek erabiltzen jarraituko dut. Marra zuzena horrela borobiltzen da.

Zeregin horretan, bederatzirte urtez, Andoaingo Kale Nagusiko Kynai denda gutako erosle askoren aliatua izan da. Negozi bat da, ogibide bat, baina ez edozein. Balio erantsia du bere langintzak. Erosi, erabili, bota kontsumojoera zoro hori mantsotu duen eragile aktiboetakoa baita.

Baitzen, esango dugu laster. Ateak itxiko dituen Kynai denda ez delako edozein denda. Ekonomia zirkularrean funtzio garrantzitsua betetzen duen saltokia da.

Natxo Irigoien NUPeko ingeneria doktorea da, eta mundu mailako auzia hobeto azaltzen du: "Ekonomia linealak, sortu dituen joku-arauekin, kontsumitzaileak behar ditu, baliabideak suntsituz eta hondakinak sortuz". Hori aldatu beharra dago. Nola? Kontsumo sistema aldatuz: "Produktuen diseinua aldatu behar da, modu mugagabean erabili ahal izateko. Konpongariak, elkar trukagarriak eta berriro erabiltzeko modukoak izateko". Gertatzen dena da Inditexek eta enparauek kalitate eskaseko jantziak ekoizten dituztela, modaz



Kynai dendak ateak itxiko ditu ostiral honetan. AIURRI

pasa aurretik ere apurtzen direnak. Erosi, erabili, bota. Eta berriro erosi. 'Merkea' delako.

Natxo Irigoien, berriro: "Sistema honek funtzionatu du denboran zehar, kontsumitzaile gutxi ginen neurrian. Gertatzen ari dena da populazioa biderkatzen ari dela. Duela ez asko, lau mila milioi biztanle ginen munduan, eta, laster, kopuru hori bikoiztuko dugu. Garai batean jendea oso gutxiarekin bizi zen, baina gaur egun populazioaren erdia kontsumo zoroaren gurgilean sartu da. Eta ari dira mundua erauzten, eraldatzen. Horrek ezin du horrela aurrera jarraitu, munduaren baliabideak mugatuak direlako".

Ekonomia linealean eroso egon dira enpresa handiak. Baina Europar Batasuna eta Nazio Batuen Erakundea joko-arauek aldatzeko lanean ari direla dio Irigoienek. Hortik etor daiteke itxaropena? "Aukera badago enpresa ertain eta txikiak zuzentzeko. Lehenak

moldatzen aurrea hartuko dute eta abantailak izango dituzte. Aukera bat da, sekulakoa, lanpostuak sortzeko eta enpresa berriak sortzeko".

Kynai dendarentzat, ordea, beranduegi izango da. Eta hori, itxuraz behintzat, ekonomia zirkularra aintzat hartzen den lurraldean egonik. Naturklima Gipuzkoako Klima Aldaketaren Foru Fundazioa da, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiari atxikita dago. Webgunean sartuz gero, hauxe dute sorburua: "Naturklima funtsezko bi galderari erantzuteko sortu da batik bat: alde batetik, zer-nolako arazoari egin behar diogu aurre Gipuzkoan? Eta, bestetik, zeintzuk izan behar dute gure lehentasunak horrelako fenomeno bati erantzuteko?".

Hiru jarduera zehatz eta nagusi dituzte. Horietako bat trantsizio ekologikoan aurrera egitea da: "Fundazioak

ekonomia zirkularreko eta trantsizio energetikoko proiektu zehatzak sustatzen eta bizkortzen ditu. Proiektu horiek Gipuzkoako enpresei pizgarriak ematea proposatzen dute, ekonomia berde baterantz aurrera egiteko irizpideak onar ditzaten, eta, horrek, lurraldean enplegua sor dezan".

Webgunean bertan aurki daiteke albisteen atala. 2023ko otsailaren 20koa da

"Ekonomia zirkularreko jardunbide egokiak merkataritzan" izeneko albistearen goiburua. Bertan sartuz gero, ondorengo irakur daiteke: "IKEA zirkularra: gustuko ditugun gauzak gehiago iraun dezaten lortzen dugu. Gaizki sentitzen zara gauzak botatzen dituzunean? Agian konpondu, berrerabili edo birziklatu egin nahi duzu, baina ez duzu horretarako behar den denbora, ezagutza edo energia? Guk lagundu dezakegu".

Zeinen arduratsua diren IKEAkoak, eta zeinen gauza txikia Kynaiakoa.

Ironiaz ari naiz, irakurle.

Gurera, oso gurera etorrita, Kynai dendako Elena Irimescuk profesionaltasun handia erakutsi du. Eskaini dio jostungintzari denbora, ezagutza eta energia. Lagundu zigu bezero askori, arroparen biziraupena luzatzen.

Ostiral honetan itxiko dituen ateak. Kostuen igoera, bizimoduaren garestitzea... azken krisi honek aurretik eraman du bere lanpostua.

Andoaingo ekonomia zirkularrean eragile aktiboetako baten itxieraren lekuko izango gara, egunotan. Ertz ugari dituen albiste tristea.



andoainDARRA  
euskaraz



Eskuinean, Maddi Etxeberría Otaegi, iazko Bertso saioan. AIURRI

# “Andoaindarren agendan toki berezia hartu duen bertso-saioa da”

MADDI ETXEBERRIA OTAEGI GAI-JARTZAILEA

Sahararen aldeko urteroko bertso-saioa izango da Basteron, martxoaren 19an, Hurria Sahararen nahiz Punttuka bertso-eskolaren eskutik

**Alba Cabrera Jauregi ANDOAIN Badator Hurria Saharak Punttuka bertso-eskolarekin urtero antolatutako hitzordua: Sahararen aldeko bertso-saioa. Eta, zu izango zara gai-jartzaile.**

Ion Belokik pasa zidan lekukoa iaz, eta, aurten, bigarren izango naiz gai-jartzaile lanetan. Lehenengo aldian, proposamena luzatu zidatenean, bertigoa sentitu nuen, izen handiko saioa delako Andoainen, eta, gainera, goi mailako bertsolariekin. Oso gustura aritu nintzen, oso erantzun ona jaso nuen. Gainera, berriro ere bertso gintzara gerturatzeko aukera eman dit, azken urteetan, urrunduta egon bainaiz. Hortaz, ilusioz hartu dut.

**Nahiz eta joan-etorrian izan, urte dezente eman dituzu bertso gintzarekin harremanetan.**

Urte askotan ibili naiz, bai, aurrera-atzera: bertsozale moduan, sarritan, eta bertsolari gisa pintzelada batzuk eginda. Asko disfrutatu dut publikoan, eta, orain, pozgarria da berriro ere mundu horretan murgiltzea, gai-jartzaile rolean.

**Non sentitzen zara erosoan, gai-jartzaile lanetan edo bertsoak abesten?**

Gaiak jartzen, zalantzarik gabe. Egia da lotsa gutxirekin aritu izan naizela betidanik oholtza gainean, baina bertsoa da gehien sufriarazi didan diziplina, eta ez dakit, zehatz-mehatz zergatik. Ondorioz, nahiago gaiak jartzen ibili, nahiz eta lehenago etxekolanak egin behar izan, ondoren, taula gainean ez baituzu asko inprobisatu beharrik.

**Zuk jada eginda al daukazu etxeko-lanak?**

Gauzatxo batzuk falta zaizkit, baina, pixkanaka, osatzen ari naiz. Punta-puntako bertsolariekin izango naiz, beraz, bai, denbora eskaini diot.

**Entrenatu egin behar izaten dute bertsolariak. Eta gai-jartzaileak?**

Nire ustez, bai. Behin martxa hartuta, pentsatzen dut, gero eta errazagoa dela. Baina, bai, lan-keta eskatzen du: hasteko, eguneratuta egon behar duzu, gaurkotatuta hurbiletik jarraitu.

**Nundik hasi martxoaren 19ko saioa osatzen?**

Beti egoten dira Saharari lotutako zenbait gai saioan. Beraz, bertako egungo errealitatea ahalik eta ondoen ezagutzen saiatu naiz. Bestalde, egunkariak irakurtzen ditut, Andoainen, eskualdean edo bertatik kanpo

gertatu denaren berri izateko. Irakurri, irakurri eta irakurri! Gaurkotatunak pisu handia du horrelakoetan, baina garrantzitsua iruditzen zait gaiek Andoainekin lotura izatea. Publikoak asko eskertzen du hori, gertutasuna sentitzen duelako. Esate baterako, aurreko urtean, Buruntzako gurutzeta izan genuen hizpide, eraitsi berria zelako. **Sona handiko bertsolariak igoko dira oholtza gainera. Urduritzen al zaitu horrek?**

Oholtza gainera igotzean lasaitu egiten naiz, baina egia da lehenago urudri samar egoten naizela.

**1.800 kilo elikagai jaso da, Sahara aldera eramateko, Hurria Sahara elkartearen eskutik. Elkartasun keinu pozgarria, ezta?**

Saharak ez gaitu geografikoki hurbil harrapatzen, baina betidanik izan da elkartasun berezia Euskal Herrian, baita Andoainen ere. Pozgarria da hori, eta jarrai dezagun horrela, bakoitzak al duen neurrian zien moduan laguntzen. Andoainen, gainera, urte osoan izan ohi du presentzia Hurria Sahara elkarteak eta hori ere garrantzitsua da.

**Orain arte, oso harrera oneko hitzordua izan da bertso-saioa. Zein aurreikuspen dituzue aurtengorako?** Andoaindarren agendan toki berezia hartzen duen bertso-saioa da. Igande eguerdian izaten da, eta oso ordu ona dela iruditzen zait. Betidanik izan du harrera ona eta aurten ere erantzun ona emango dute bertsozaleek, ziur!

**"AURTENGO BERTSO-SAIOAN ERE ERANTZUN ONA EMANGO DUTE BERTSOZALEEK"**

**"URTE OSOAN, PRESENTZIA DU HURRIA SAHARA ELKARTEAK, ETA HORI GARRANTZITSUA DA"**

**"POZGARRIA ZAIT BERRIRO ERE BERTSOEN MUNDUAN MURGILTZEA, GAI-JARTZAILE MODURA"**



# SAHARAREN

## ALDEKO BERTSO-SAIOA



**Martxoak 19, igandea**  
**ANDOAIN**

**12:00**

**Bastero Kulturgunea**

Sarrerak salgai: 6 euro.  
Stop, Ernaitza, Delgado  
eta Urrats

**Alaia Martin**

**Amets Arzallus**

**Oihana Iguaran**

**Aitor Mendiluze**

**Maialen Lujanbio**



**Sustrai Colina**

Gai-jartzailea:  
Maddi Etxeberria

ANTOLATZAILEAK



LAGUNTZAILEAK



ANDOAINSO UDALA

**Gonbidatu berezia:**

**Ismael Aomar**





AIURRI

## Sutagarren erakustaldia

"Alarma" disko berriena aurkeztu zuten Durangoko Azokan, eta, aste honetan hasita, aurkezpen-birari ekin diote. Andoaingo Gaztetxeko sarrerak agortu ziren, eta, horren ondorioz, sekulako giroa izan zen aurreko ostiralean. Emanaldia amaitu eta gero, birritan atera behar izan zuten kantu gehiago eskaintzera.



AIURRI

## Udal Musika Eskolako Banda

Munduko hainbat musikatan barrena bidaia burutuko dute, emanaldian kultura ezberdinetako melodiak uztartuz. Parte-hartzaileak izango da Bastero Kulturguneko emanaldia, gonbidatu eta guzti. Emanaldi berezia datorren martxoaren 24an izango da, iluntzeko 20:00tan hasita. Doakoa da, eta sarrerak zenbakituak izango dira.



Alicia Martin Lopez artista, irekiera-ekitaldian. AIURRI

## Naturaren behatzaile bilakatu dira Alicia Martinen margolanak

"Joko amaigabea" izenburuko pintura erakusketa zabalik dago, apirilaren 5a bitarte

**Xabier Lasa** ANDOAIN

Alicia Martin Lopez sortzaileak formatu handiko margolanak bildu ditu Basteron, "Joko amaigabea" izenburua daraman pintura erakusketan. Artista abstrakzioaren lengoaiatik eta materiaren portaeraren ikerketatik abiatzen da. Haren hitzetan, "mundu naturalaren berezko

dinamikak eta horien etengabe-ko desagertze- eta birsortze-zikloak gogora ekartzen dituzten egiturak islatzeko". Anbiguotasunarekin jolastea du gogoko Martinek, "ikusleak jakin ez dezan behatzen ari den artelana edo figura mundu mineralatik, animalietatik edo landareetatik datorren".



Erakusketa zabalik da Bastero Kulturgunean. AIURRI



Emanaldiaren afitxa. GAZTETXEA

## Gailuren kontzertu berria Andoainen

Martxoaren 26an Andoaingo Gaztetxean ariko da, "Eskola zaharra" egitasmoaren baitan


**Erredakzioa** ANDOAIN

Zuzeneko emanaldiei ekin zieten urtea beteko da, egun hauetan. Gernikan eta Donostian eskaini zituzten lehen emanaldiak, eta geroztik Euskal Herrian barrena aritu dira. Mikel Abrego andoaindarrak sustatu duen musika proposamen berria da Gailu, eta harekin batera zuzenean aritzen dira Eneko Abrego "Okene" anaia abeslaria eta Mariano Hurtado baxu-jotzailea. "Eskola Zaharra" berriki abiatu den egitasmoa da. Lukiekek abiatu zuen zikloa, eta Andoaingo taldeak emango dio segida. Arratsaldeko 19:00tan hasiko da, egun argiz, ordu al-daketa baitator.

## Martxoak 8 Aiurri.eus webgunean



ALBISTEAK



ARGAZKI-BILDUMAK, BIDEOAK



AGENDA

AIURRI.EUS

ALBISTEAK, ARGAZKIAK, BIDEOAK, AGENDA





Udalak elkarretaratzea antolatu zuen, San Juan plazan. AIURRI

## Bi deialdi Urnietan, martxoaren 8an

Udalak eta Itaiak antolatuta, hitzordu bikoitza izan zen Urnietan

### Erredakzioa URNIETA

Aldarrikapenez bete ziren Euskal Herriko kaleak martxoaren 8an, baita Urnietan ere. Arratsaldeko 18:00tan, elkarretaratzea izan zen San Juan plazan, Urnietako Udalak egindako deialdian. Irakurketa egin ostean, itxiera musikatua izan zuen

Lourdes Iriondo Musika eskolako Enara Donavera eta Jone Izagirrenen eskutik.

Bestalde, iluntzeko 20:00etarako deialdia egin zuen Beterrri-Buruntzako Itaiak Zaldundegi plazan, "Emakume langileok askatzeko sozialismoa eraiki!" lelopean.



Itaiak Zaldundegi plazan antolatu zuen elkarretaratzea. ITAIK



Urnietako  
udala



Asanbladaren afitxa. ASANBLADA

## Lodifobia hizpide izango dute Andoainean

Asanblada Feministak antolatuta, datorren martxoaren 23an izango da Gaztetxean

### Erredakzioa ANDOAIN

"Munstroak hemen dira: sistema lodifobia suntsitzeko lehen pausoak" izenburupean, hitzaldia antolatu du Andoaingo asanblada feministak hilaren 23an. Andoaingo Gaztetxean izango da solasaldia, arratsaldeko 19:30ean, Ezin Kabitu kolektiboaren gidaritzapean.

Hausnarketarako amua izan nahi du mintzaldiak, eta lodifobiari buruz hitz egin, jendartea eta, bide batez, norbanakoak nola zeharkatzen dituen ikusteko.

Loditasuna politizatzeke premiaz, Euskal Herriko I. Jatu-naldiak antolatu zituen Ezin Kabitu kolektiboak joan den urtean, irailaren 9tik 11era bitarteko asteburuan, Gernika-Lumon, "Euskal Herria patriarkal eta gordofoboaren baitan elkarrekin egoteko. Pentsatzeko, jolasteko, tripak eta izterrak elkarri igurtzeko, lardaskan aritzeko, jateko eta konspiratzeko espazioa sortzera goaz".

Hala, topaketa hori abiapuntu, hariari tira egin eta buru-belarri lanean dihardu kolektiboak. Esaterako martxoaren 4an, "Lodiok harro" eguna antolatu zuten, Lodifobiaren aurkako eguna ospatzeko eta auzia modu kolektiboan mahaigaineratzeko.



Aspaldiko partez, zelaira itzuli zen Marta Ollacarizqueta Solana herrikidea. ARGINDAR

## Emakume futbolarien jaia Ubitarte zelaian

Martxoaren 8ko egitarauaren barnean, pala eta futbol topaketa irekiak antolatu dituzte

### Erredakzioa ANDOAIN

Mendeurrena dela, martxoaren 8ko egitaraua dela, Euskaldunan ez daude eskuak gurutzatuta. Ekimen betean dira. Aurreko igandean, lagunarteko ospakizuna egin zuten. Eta, asteazken arratsaldean, solasaldia antolatu zuten Basteron. Añorgako

jokalari izandako Ixiar Bakero eta Amaur Sarriegi Realeko jokalaria futbolaren bilakaeraz hizketan aritu ziren. Eta, datorren asteazkenean, martxoak 22, Natalia Arroyo Realeko lehen entrenatzaileak hitzaldia eskainiko du Basteron. Futbola eta kazetaritza hizpide izango ditu.



Hainbat belaunalditako jokalariaiek elkartu ziren. ARGINDAR



Giro onean igaro zen igande eguerdiko jardunaldia. ARGINDAR



Urnieta taldea, artxiboko irudian. UKE

## Lehen postua sendotzen ari da Urnieta taldea

**FUTBOLA** 1. erregional mailako igoera fasean, bigarren sailkatua jasoko dute asteburu honetan

### Erredakzioa ANDOAIN

Liga amaitu ostean, igoera fasean murgildu da Urnieta. Eta lehen sei jardunaldietan nagusi agertzen ari dira gorritxoak. Seitik bost garaipen eskuratu dituzte, gol gehien sartu duen taldea da (19) eta, era berean, Landetxarekin batera, gol gutxien jaso duena (8). Estatistika horiekin, lidergotza sendoa erakusten ari dira. Asteburu honetan, etxean ariko dira, sailkapenean bigarren ari den Landetxa taldearen aurka. Jardunaldiko partida interresgarriena, beraz, Urnietan jokatu da.

Bide batez, asteburukoarekin amaituko da igoera faseko lehen itzulia. Urnietak aurreko asteburuan sailkapenaren azken postuan dagoen Behobia garaitu zuen (2-4), eta Landetxak berdinketa lortu zuen Lengokoak taldearen aurka (1-1).

### FUTBOLA

Senior maila, igoera fasea

#### SAILKAPENA

1	URNIETA	15 puntu
2	LANDETXA	12 puntu
3	MARIÑO	10 puntu
4	SANPEDROTARRA B	10 puntu
5	LENGOKOAK	8 puntu

## Bikain aritu ziren

**DUATLOIA** Zumeatarra triatloi taldeak Añorgako duatloian lan txukuna egin zuen, aurreko asteburuan. Taldeka bigarren postua lortu zuten. Eta, horrez gain, klubak zabaldu duenez, Andoni illarramendi V2 kategorian txapeldun izan zen, eta Aitor Sarasola txapeldun-orde V1 kategorian. Bestalde, Iñigo Duarte-k 12. postua lortu zuen sailkapen nagusian. Gainera, hiru taldekide lehen aldiz aritu ziren: Koldo Velasco, Mikel Aranalde eta Maria Rengel.



ZUMEATARRA



Nora Mendizabal. MASTERCUP

## PILOTA Masters Laboral Kutxako finalean ariko da

Arrizabalaga-Oses eta Aldai-Mendizabal arteko finala martxoaren 26an izango da, Zarautzen.

Emaitzak:

Arrizabalaga-Oses 22 / Garai-Gaminde 16.

Aldai-Mendizabal 22 / Larrarte-Arillagar 18.



EUSKALTEL

## Vueltan aritzeko aukerarik gabe

**TXIRRINDULARITZA** Wild card edo gonbidapen-txartelak garesti daude itzuli handietan. Aurten Espainiako Vueltan Burgos BH eta Caja Rural ariko dira, eta ondorioz Mikel Iturria eta Euskaltel kanpoan geratuko dira. Nazioarteko proba berri gehiago ezagutzeko baliatuko du euskal taldeak 2023. urtea.

## Jardunaldi berezia

**TXIRRINDULARITZA** Andoaingo pala jokalarientzat ez ohiko jardunaldia izan zen aurreko larunbatekoa. Ohiko saioez gain, Gipuzkoako Kirol Egokituko Federaziokoekin bisitaldia jaso zuten. Eta haiekin palan aritu zire Arrate pilotalekuan. Jardunaldia martxoaren 8ko egitarauaren barnean iragarri zuten, Andoainen. Deialdia irekia zen, parte hartu nahi zuen ororentzat.



GAZTELEKU



Izaro Etxarri, Irati Aranguren eta Itziar Alkain, Atarrabian. ANDOAINGO

## Andoaingo nesken erakustaldia Atarrabiako lasterketan

**TXIRRINDULARITZA** Kadete mailakoak podiumera igo ziren, eta junior mailakoak ere aurrealdean ibili ziren

### Erredakzioa ANDOAIN

Andoaingo Txirrindulari Eskolako nagusitasuna agerikoa da, azken bi urteotan. Hango eta hemengo lasterketan erakusten ari dira gaitasun handi hori. Azkena, Atarrabiako lasterketan izan zen. 50 kilometroko ibilbidean Izaro Etxarri izan zen lehena, eta Irati Aranguren hirugarrena. Itziar Alkain 26. postuan sailkatu zen. Lasterketa bizia izan zen eta iheslarien artean Etxarri eta Aranguren murgildu ziren. Eman eta eman aritu zen Etxarri, eta azken tar- teko helmugan eman zuen kolpea.

Iheskideak atzean utzi eta hel- mugaraino bakarrik iritea lor- tu zuen.

Junior mailako lasterketan Intza Navarro 8. sailkatu zen, eta Izaro Zuriarrain 22. postuan. Zuriarrainek ihes egitea lortu zuen lasterketaren amaiera al- dera, baina ez zioten bidea egi- ten utzi. Navarrok, etaparen bila, esprintean parte hartu zuen.

### Junior mailako mutilak

Altsasuko lasterketan, 40. kilo- metroan, eroriko handia izan zen eta lasterketa bertan behe- ra utzi zuten.

## FUTBOLA Orioko taldearen aurka, berdinketa

22. jardunaldian, Euskaldunak berdinketa lortu zuen Oriokoren aurka (2-2). Ilintxa taldearen bisitaldia jasoko dute, asteburu honetan, Ubitarte zelaian.

### FUTBOLA

Ohorezko jubenil maila

#### SAILKAPENA

1	ANAITASUNA	46 puntu
2	EUSKALDUNA	42 puntu
3	ZUMAIAKO	37 puntu
13	ILINTXA	26 puntu

## FUTBOLA Hirugarren postuari heldu nahi diote

Real Union eta Deusto maila bat gorago daude. Aurrealdean jarraitzeko borrokan dabil Andoaingo taldea, eta larunbatean Oriokoen bisitaldia jasoko du.

### FUTBOLA

Gorengo maila, 22. jardunaldia

#### SAILKAPENA

1	REAL UNION	58 puntu
2	DEUSTO	48 puntu
3	EUSKALDUNA	38 puntu
8	ORIOKO	30 puntu

## ESKUBALOIA Bigarren postuan, azken txanpa iritsi denean

Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea bolada onean da, aurreko asteburuan Allurralden Saieko garaitu eta gero (33-28). 1. lurraldeko senior mailako gizezkoen liga amaitzeko hiru jardunaldiren faltan, bigarren postuari eusten dio.

### Txingudi-Leizaran, asteburuan

10. postuan sailkatuta daude, eta bi talderen artean hamar garaipeneko alde dago. Alde handia, beraz. Ea garaipen berria eskuratu dezakeen Andoaingo taldeak.

### ESKUBALOIA

1. lurraldeko senior maila, gizezkoak

#### SAILKAPENA

1	ORDIZIA	31 puntu
2	LEIZARAN	26 puntu
3	UROLA	26 puntu
13	SAIEKO	23 puntu



BURUNTZALDEAK

## Juniorrak, Neguko txapelketan

**IGERIKETA** June Lopez, Garazi Etxeberria, Iker Gorostegi eta Miren Sarobe Iruñeako Amaya Kirol Hirian ospatu zen junior eta absolutu mailako Euskal Herriko Neguko Txapelketan aritu ziren. 11 marka pertsonal egitea eta bi brontze lortu zituzten. Bi aste barru, Udaberriko Sarian izango dira, Tolosan.



**berria**  
INBENTONTE TXAPELKETA 2023  
zuk badaktzuelako

GALARRETA JAI ALAI HERNANI  
**MARTXOAK 18**  
**LARUNBATA**

**BERRIA TXAPELKETA (35 TANTO)**  
GOIKOETXEA V • AIESTARAN vs  
URRUTIA II • APEZETXEA

**2 PARTIDUA (35 TANTO)**  
URRIZA • BARRENETXEA IV vs  
ANSA II • EZKURRA II • LARRANAGA

**12:00etik AURRERA**

**65 sukia** | **PAPELERA GURIZCOMA DE ZUCUNAGA, S.A.U.** | **AIURRI**

## HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

## OSTEGUNA 16

**URNIETA Lehiaketa**

Antia literatur lehiaketa haur, gazte eta helduen mailetan.

*Lanak aurkezteko epea: Martxoak 17. Lekai.*

**ANDOAIN Erakusketa**

"Joko amaigabea", Alicia Martin Lopezen eskutik.

*Bastero.*

**ANDOAIN, URNIETA Euskara**

Errigora ekimena martxan da. Badator Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura! Erosketa egin daiteke Errigora.eus gunean bertan. *Martxoak 9-29.*



Pintto pintto ikuskizuna, igande honetan Urnietan. ANITA MARAVILLAS

**URNIETA Haur ikuskizuna**

"Pintto, pintto" goxotasunez eta umorez kontatutako istorioa da. Adiskidetasuna bezalako bat-bateko gertakari batek gure bizitzeko eta harremantzeko modua guztiz eraldatu dezakeela kontatzen du.

*Martxoak 19, igandea. 17:30, Sarobe. 3 euro.*

## OSTIRALA 17

**URNIETA Odol-emaileak**

Odola emateko aukera izango da Urnietako Gaztelekuan.

*16:30-20:30.*

**ANDOAIN Antzerkia**

"Futbolistok", Zuhaitz Gurrutxaga. *20:00, Bastero.*

## IGANDEA 19

**ANDOAIN Bertso saioa**

Sahararen alde, Hurria-Saharak eta Punttukak antolatuta. Alaia Martin, Amets Arzallus, Oihana Iguaran, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio, Sustrai Colina. Sarrerak Stop, Ernaizta, Delgado eta Urrats.

*12:00, Bastero.*

## OSTIRALA 24

**ANDOAIN Musika**

Andoaingo Udai Musika Eskolako Bandaren emanaldia.

*20:00, Bastero.*

## LARUNBATA 25

**ANDOAIN Garbiketa lana**

Oria ibaia garbitzeko deialdia.

*09:30, Allurralde.*

**ANDOAIN Batzarra**

Karrika elkarteak deituta.

*15:00, 1.deialdia. 16:00. Karrika.*

## IGANDEA 26

**ANDOAIN Haur antzerkia**

"Arrainak bihotzean", Leire Bilbaoren jatorrizko ideiatik abiatuta eta Mar mar konpainiak ekoiztuta.

*12:00, Bastero.*

## OSTIRALA 31

**ANDOAIN Ikuskizuna**

"Katuen kontuak" musika eta literatur emanaldia. Joseba Sarrionandia eta Ines Osinaga igoko dira taula-gainera.

*20:00, Bastero.*

## ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO**

**Almas en pena de Inisherin**


Lar, 18. 19:30, 22:00.  
Ig., 19. 19:30.  
Astl, 20. 19:30, 22:00.

**King, mi pequeño rey**

Lar, 18. 17:00.  
Ig., 19. 17:00.

**Mari(dos)**

Lar, 25. 19:30, 22:00.  
Ig., 26. 19:30.  
Astl, 27. 19:30, 22:00.



## SINOPSISIA

**Almas en pena de Inisherin**

**Zuzendaria, gidioia:** Martin McDonagh. **Aktoreak:** Colin Farrell, Brendan Gleeson, Kerry Condon, Barry Keoghan, Pat Shortt, David Pearse, Gary Lydon, Jon Kenny. **Herrialdea:** Britainia Handia (2022). **Hizkuntza:** Gaztelania. **Generoa:** Drama, adiskidetasuna, komedia beltza. **Iraupena:** 114 min.

## Adiskidetasunari buruzko filma

Irlandako kostaldearen parean dagoen uharte urrun batean bizi dira Padraic eta Colm lagun minak. Bapatean Colmek adiskidetasun horri amaiera ematen dio. Padraic zur eta lur

geratuko da eta harremana berreraikitzen ahalegintzen da, bere betiko lagunaren ezezkoa onartzeari uko eginez. Gertaerak pilatuz doaz, egoera katramilatu arte.

bertako  
igogailuak | ascensores

DIENETAKO OROTARIKO ZERBITZUA

100€-tik/hileko

IGOGAILUEN  
MANTENTZE-LANEN  
ESKAINTZA  
ZORROTZENA

+2.000 bezerok gugan  
dute konfiantza

943 903 450  
bertako.eus





WIKIPEDIA

## Irteera, Maskarada ikustera

Datorren martxoaren 26an, Zuberoako Urdiñarben, Maskaradak izango dira eta Urki dantza taldeak irteera antolatu du. Autobusez abiatuko dira, goizeko 09:30ean Laboralaren paretik irtena. Iuntzeko 19:30ean itzuliko dira. Prezioa, 12 eurokoa da, eta haurren kasuan 6. Izen-ematea datorren martxoaren 21era arte zabalik dago. Informazioa: 627 441 603.



AIURRI

## Odola emateko astea

Odola emateko aukera bikoitza egon da aste honetan, Andoainen eta Urnietan. Astelehen arratsaldean odol-emaileak Andoainen elkartu ziren, bertako Osasun Etxean odola emateko. Ostiral arratsaldean hitzordua Urnietan izango da. Interesa duenak aurretik deitu behar du 943 007 885 telefono zenbakira.

## ODOL-EMAILEAK



### HURRENGO HITZORDUAK

#### Martxoak 17, ostirala.

16:30-20:30.

URNIETAN, Gaztelekuan. Hitzordua egun berean hartzeko, 943 007 885. telefono zenbakira deitu.

## Tokiko Energia Komunitateen informazio bulegoak

Urnietakoa martxoaren 30era arte zabalik izango da; Andoaingoa apirilaren 4ra arte

### Erredakzioa ANDOAIN

Urnietako bulegoa Udal kiroldegiko instalakuntzetan dago. Martxoaren 30era arte egongo da zabalik, asteartetik ostegunera, eta ordutegia ondorengoia izango da: 10:00-14:00 eta 16:00-20:00. Ekimenari buruzko informazio guztia eskura dago Udalaren webgunean eta APP-an.

Andoaingoa udaletxean dago, Ataria arretarako informazio gunean. Datorren apirilaren 4ra arte egongo da irekita. Ordutegia: asteartero, 10:00etatik 14:00etara, eta, ostegunero, 14:00etatik 17:45era.

## ZORION-AGURRAK



ANDOAIN  
**Zorionak Iker!!!**  
Martxoaren 26an 11 urte beteko dituzu! Asko disfrutatu zure egunaz maizta eta jarraitu zaren bezalakoa izaten! Izugarri maite zaitugu! Etxekoak



ANDOAIN  
**Irati Nuñez Larrea**  
Martxoaren 13an 14 urte bete zenituen. Gure maitasunaren seinale, muxuak eta muxuak zuretzako! Egun ederra izan zenuelakoan.



ANDOAIN  
**Ongi etorri Zuhaitz**  
Zorionak familia! Aupa aitaxo eta amatxo! Irrikitzen gaude zu besotan hartzeko eta zutaz goxatzeko! Zure lehengusuak, izeba eta osaba.



ANDOAIN  
**Zorionak Anje!**  
Gure etxeko mutikoak 5 urte beteko ditu martxoaren 25ean. Jarraitu hain bixi eta jator. Asko maite zaitugu! Muxuak!

## BETERRI-BURUNTZA MANKOMUNITATEA

### LAN ESKAINTZA

Mankomunitateak abian jarri du zuzendaritza postua betetzeko hautaketa prozesua. Oinarriak

Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dira 2023ko martxoaren 15ean eta baita beterriburuntza.eus gunean ere.



AIURRI

## Sari gozoa Egunean Behini esker

11. denboraldiko bosgarren asteko sari gozoaren irabazlea "Natalia" izan da. Eta seigarren astekoa, berriz, "Gurutze". Biak Arruti gozotegiko sari gozoaren jabe dira. Aste honetan zazpigarren astea jokatzeko ari da, eta aste osoko partidak jokatzeko dituzten artean sari berria zozkatuko da. Aurreko irabazleak izan dira "Gotzon", "Saioa", "Xabi" eta "Azabala".

## Batxilergoaren aurrematrikula: martxoak 27 - apirilak 21



### Batxilergoko modalitateak:

- Zientzia eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak
- Orokorra

▶ IKASGAI AUKERA ZABALA

**ATE IREKIAK:**  
**Martxoak 23**  
**18:00**



✉ institutua@hernanibhi.eus ☎ 943 899 510 🌐 www.hernanibhi.eus 🐦 @HernaniBHI

# EDERTASUNA ZABALDU



Gipuzkoa poesiaz bete nahi dugu eta zurekin kontaktzen dugu hori lortzeko.

## MARTXOAREN 15etik 21era

Partekatu edertasuna zure sare sozialetan eta berehalako mezularitzako aplikazioetan: poesia, argazkiak, poema irakurketak, bideo sortzaileak... Irudimena da muga.

#EdertasunaZabaldu #PoesiarenEguna

Poesiaren  
Eguna

Martxoak 21

Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Kultura, Lanbidetza, Gazteria  
eta Kirol Departamentua



ETORKIZUNA  
ORAIN



@GipuzkoaKultura